

Gogoan hartu damutu baino lehen

Ferreres & Solé
Correduria de Seguros, S.L.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina
Nº 64 / Ekain 2018

“Neurrian jaten duenak osasuna zaintzen du” eta osasun aseguru batekin, sendatu



Osasun aseguruak adinaren eta osasun egoeraren inguruko mugak edukitzen dituzte. Ez bazara poliza horietako bat kontratu duten ia 11 milioi pertsonetako bat, aztertu aukerak, berandu izan baino lehen, adina eta horren ondoriozko “ajeak” handicap bat baitira horrelako bat kontratatzeke.

Aseguru on bat aukeratzeko **funtsezko 3 aholku:**

1. Aseguru-etxearen ospea: kaudimena, zerbitzuak esperientzia...
2. Tratu pertsonala, batez ere osasun asistentziak maiz erabiltzen badira.
3. Zure adinaren, generoaren eta osasun-egoeraren arabera bermeak.

Aseguru-etxe batzuek balio gabetu egiten dituzte polizak 60 urte betetakoan; beste batzuek, aldiz, mantendu egiten dituzte, baita asegurdunaren adinera egokituta ere. Hala, geriatriako eta hirugarren adineko beste espezialitate batzuetako espezialisten arreta eduki dezakete barne. Proba diagnostikoak, kirurgia eta ospitaleratzea ere aurreikusten dituzte.

Kontuan hartu beharreko beste hainbat gauza:

Aurreizateak. Asegurua kontratatu aurre-

tik ditugun gaixotasunak dira. Poliza sinatu baino lehen aitortu behar ditugu.

Koordainketa. Aseguru-etxe batzuek aseguratutako hainbat prestazio erabiltzerakoan erabiltzen duten formula da; prestazio horien zenbatekoaren zati bat kobratzen dute, horiek erabiliz gero.

Mediku taldea. Osasun arreta jasotzeko dituzun mediku eta zentroen zerrenda. Garrantzitsua da zerrenda aseguru egin baino lehen aztertzea.

Gabealdiak. Poliza kontratatzen duzun unetik dituzun denbora-epeak dira, epe horietan prestazio batzuk ez dira aktibo egoten.

Nola sartu seme-alabak aseguruan? Aseguru batzuek automatikoki sartzten dituzte; beste aseguru batzuetan, espresuki sartu behar dira. Jaio ondorengo 30 egunen barruan egiten baduzu, erditze unetik egongo da aseguratuta.

Osasun aseguruarekin duzun harremana epe luzerakoa da. Oso ongi aukeratu behar duzu. Garrantzitsua da aukera egokia egitea, aukera guztiak aztertuta. Gaixotasun batzuk ez dituzte konpainia guztiak onartzen. Erabaki baino lehen, galde iezaguzu. Horrela baino ez duzu asmatuko.

15 milioiko galera, uraren ondorioz. Nola ordaintzen ditu Consorcioak kalte-ordainak?

Udaberriaren hasieran, urak hartu du Espainia. Eurite eta desizozte larriek uholdeak eragin dituzte Nafarroan, Aragoian eta Errioxan. Consorcio de Compensación de Seguros 15 milioi euroko balioa duten 1.500 kalte-ordain ari da izapidetzen.

Nortzuk erreklama dezakete?

Aseguru bat kontratatu dutenek, horren onuradun edo hirugarren kaltetu izan.

Zenbat eguneko epea dago kalte-ordainak eskatzeko?

7 eguneko, baina zenbat eta lehenago, hobe. Aseguru-artekaritza garen aldetik, gu ardura gaitzeko, gure bezero izateagatik. Polizaren, hartzailearen eta asegurdunaren datuak emango dizkiogu Consorcioari, eta zurekin batera, kalteak espezifikatu eta kontu-zenbaki bat emango dugu, kalte-ordain zenbatekoa bertan sartzeko.

Perituari eman beharrekoak dira...

Konponketen aurrekontuak eta fakturak, polizaren kopia, eta azken ordainketaren ordainagiria.

Goarde ongi kalteak izan dituzten ondasunak, eta, ahal izanez gero, atera argazkiak, bota baino lehen.

Perituak dio infraasegurua dagoela; zer esan nahi du horrek?

Aseguratutako kapitala kaltetutako ondasunen balio erreala baino txikiagoa dela. Aitortutako balioa balio erreala baino txikiagoa bada, kalte-ordaina ere eragindako kalteak baino txikiagoa izango da, aitortutako balioaren proportzioan kalkulatzen baita. Ikuskatu zure poliza, eta kapitala falta dela uste baduzu, esan iezaguzu.

Consorcioak ordaintzen du etekin-galtzea?

Kalte zuzenen ondorio badira, BAI. Baina estaldura hori barne hartu behar du.

Irakaspena

Fida zaitetz zure aseguruaz, fida zaitetz guztaz, eta ez ahaztu poliza guztiak eguneratuta edukitzea, zure ondasunen balio erreala aseguratuta.



Familiaburua: nahiz eta ez jo, ordaindu!



"Aste Santuko prozesio bat pasatzen ari zen. Zure lagunak gonbidatu zenuen. Ume batek loreontzi bat bota zuen nahi gabe, eta pasoteko bat hautsi, errebotatu, eta buruan zauritu zuen kofradeetako bat".

"Zure semea Poloniara joana zen Eras-musekin. Egun batean, klasera bizikletaz zihoala, oinezko bat jo eta gorputzeko kalteak erreklatatu zizkieten".

Litekeena da ordaindu behar izatea; irakurri arretaz zure etxe aseguru edo Familiaren Erantzukizun Zibileko aseguru.

"Ez naiz ni izan"

Zu ez zeuden etxean... Kode Zibilak dio berdin dela, *"Familiaburua etxe batean edo horren zati batean bizi bada, erantzukizuna du, bertatik gauzak jaurti edo erori eta gauza horiek eragiten dituzten kalteen gain".*

Garbi uzten du hau ere: *"gurasoena da euren zaintzapeko seme-alabek eragindako kalteen erantzukizuna".*

Erantzukizun Zibil Familiarrak (Etxeko aseguruan sartuta egon edo ez) estaltzen ditu zure etxeak eragindako kal-

teak (ur-isuriek, adibidez) eta etxe horretan bizi diren guztiak eragindakoak, ekonomikoki zure mende badaude, nahiz eta adinez nagusi izan. Hauetaz arduratuko da:

(Etxeko) **higiezinetako kalteak:**

- Erabileraren ondoriozkoak.
- Konponketen ondoriozkoak.
- Maizter batek eragindakoak.

Erantzukizun Zibil Familiarrak ondorengoak estal ditzake:

- Zure maskotek eragindako kalteak.
- Gonbidatu bat elikagaiekin intoxikatuz gero.
- Etxek langileek eragindakoak.

"Mutil bat harriak airera botatzen ari zen, eta hari batek ikastetxeko ikaslide bati jo zion begian. Ikusmena galdu zuen. Mutikoaren gurasoak epailearengana jo zuten, eta epaileak milioi askoko kalte-ordaina ordaintzera zigortu zituen harriak bota zituen hauraren gurasoak".

Ez da zure kasua, zuk Erantzun Zibil Familiarra duzu-eta. Edo ez?

Gomendio

Udaberriak zure autoa aldatzen du

Sasoi ezegonkorra da udaberria, eguzki betetik eurira edo txingorrera pasa gaitzeko minutu gutxitan, eta horrek errepideko ezbehar-kopurua handitzen du. Hala ere, zero urdin dirdiratsu baten azpian egun atsegin bat pasatzeko asmoz, besterik gabe irtetzen gara. Hona hemen hainbat aholku erraz irteera horiek inork edo ezerk zapuztu ez diezazkigun:

- Errespetatu beti errepideko seinaleak, bai eta klimatologiaren inguruko aholkuak ere. Batez ere, gehieneko abiadura-mugen seinaleak, eta zaindu segurtasun-tartea.

- Euria, txingorra edo lainoa badago, piztu argi laburrak, ikus gaitzaten, eta beharrezkoa izanez gero, baita lainotako argiak ere, abiadura moteldu eta saiatu frenoak ez ukitzen. Handitu segurtasun-tartea. Edota autoa galtzadatik kanpo geratu eta itxaron.

- Prestatu zure ibilgailua: ziurtatu argiak ongi daudela, beira-garbigailuak ongi dabilzela eta eskuilak ere ongi daudela. Gurpiletako airea egokia dela eta konprobatu ordezko gurgila daramazula. Bateria eta izotz-kontrakoaren maila ere begiratu, maletategian nahitaezko elementu guztiak daramatzazula ziurtatu. Eta garbitu ezazu...

Ez ahaztu Errepideko Asistentzia telefonoa eramatea. Gure aseguru-artekaritzan, Adis-kidetasunezko Istripu-aitorpenarekin batera ematen dizugu.



Isuna, Homer Simpson balitz bezala gidatzeagatik

Milton Keynesen gertatu zen, Ingalaterran. Polizia batek ibilgailu bat geratu zuen, eta gidabaimena eskatu zuen... Homer Simpsonen izenean zegoen. Haren jaiotza-data, helbidea eta sinadura zituen. Gidabaimena faltsua zen, noski.

Gidabaimen faltsua edukitzeagatik eta aseguruik gabe gidatzeagatik jarri zioten isuna gidariari.



Anekdotak